

Nicolás Sáez de Elola, Peruko Konkistan Bitxikeriak

*IMANOL ELIAS ODRIOZOZA “GAIZTOA”
Azpeitiko Ohorezko Kronista*

Resumen:

El objeto de este breve trabajo es mostrar las vivencias de Nicolás Sáez de Elola durante la conquista del Perú y su transformación personal a su retorno a su lugar de origen, con inclusión de diversos sucesos.

Palabras clave: Nicolás Sáez de Elola. Perú. Conquista. Sucesos.

Laburpena:

Lantxo honen bitartez, Nicolas Sez de Elola azpeitiarrak Peruko konkistaren ezagutu zuen giroa eta ondoren jaioterrira bihurtzean egin zuen aldaketa adierazi nahi du, hainbat bitxikeri dela medio.

Hitz gakoak: Nicolas Saez de Elola. Peru. Konkista. Bitxikeriak.

Summary:

The aim of this short study is to show the experience of Nicolas Saez de Elola during the conquest of Peru and his personal transformation on his return to his birthplace, including various incidents.

Key words: Nicolas Saez de Elola. Peru. Conquest. Incidents.

Mundu berrian zehar

Mundu berri bat zegoela jakiteak, jendetza handia bultzatu zuen abentura bat egitera, alde batera utzirik unean eskuraturik zuen guztia. Ezinezkoa egiten zitzaien jakitea zer nolako bideak jarraitu beharko zituzten lurrarde haietan zerbait lortzeko eta derrigorrezkoagaten zitzaien ausartak eta indartsuak izatea. Horrela, lehen batean bidean jarri zirenek ausardia izugarria izan zuten zalantzak gabe beraien ametsak egi bihurtu nahirik, borrokarako ere prest zirela. Soldaduak ziren.

Beste batzuk bestalde, lurrarde haietan seguruenik ezagutzen ez zen jainko baten izenean bertako biztanleen sinesmenak zapuztu nahirik, beharrezko neurriak hartzen ahaleginduko ziren. Elizgizonak ziren eta soldaduek emandako aginduak beterik beraien esku hartuko zuten justizia, unetxo bakar baten ere pentsatu gabe biztanle haiet bestetik Jainko batzuetan sinesten zutela eta beraiekin bat eginik zirela aspalditik.

Aitorru beharreko da zoritzarrez, abentura horretan parte hartu zuten soldadu eta elizgizonen artean euskaldun asko izan zirela Peruko konkistan espainiarrekin bat eginik, eta horian artean Nicolas Saez de Elola azpeitiarra. Lehenenetakoia izanik bertaratzetan Francisco Pizarro edo Hernando de Sotorekin batera, derrigorrezkoagaten zitzaien konkistako hainbat borrokatan parte hartu beharra kontutan izanik zaldun kapitaina kargua zuela.

Azpeitiar kapitainak bere deitura aldatu zuen eta Peruko lurraldean egin zuen denboraldian Nicolas de Azpeitia deitura hartu zuen, beste euskaldun batzuen joerari jarraituz, hau da, jaioterriaren deitura ezarriz izenari.

Urrea eta zilarra bihurtu ziren jainkotzat Perura iritsi zirenentzat bide egokia iruditurik beraien maila soziala gainditzekeo. Beraien bizitza arrisku osoan jarria zuten eta ordaintzat aberastasun handia eskuratzeko bidean bai ziren. Atahualpa atxilotu ondoren bere Bainuetan lortu zuten aberastasunari buruz adierazten zaigu¹, eta esan behar hasiera besterik ez zela izan.

Gehiago eskura zezaketen eta Atahualpa atxilotzeak zabalduko zuen bide egokia horretarako, konturaturik zenez hau askatasuna lortu zezakeela urea eta zilarra eskainiz bere borreroei, ikusirkir Gehien estimatzen zituzten gauzak zituztela. Pizarro eta bere lagunek zerbait gehiago behar bazuten, Inka berak ematen zien horrela nahia betetzeko erosotasuna eta saiatuko

(1) VILLANUEVA SOTOMAYOR, Julio R. *El Peru en los tiempos modernos*. “Se valoró ese primer tesoro de los Incas en 80.000 pesos de oro, 7.000 marcos de plata y catorce esmeraldas”.

ziren Cajamarca herria zaintzen, laguntza berezia aurkiturik horretarako Atahualparen anai Huascaren jarraitzaileengan.

Dirudienez, Inkak eskainitako lehen urre zama, beraren anai batek ekarri zuen, garaiko kronistetakoak diotenez², baina ondorengo egunetan zehar ere garraioari jarraituz, garbi agertuz horrela Atahualpak bete egingo zuela emandako hitza askatasuna lortzearen. Konkistatzaileak eskuratzent joan ziren altxorraren aurrean, Pizarroren taldea geroago eta kezkatiago zen nonbait, nolatan eta noiz banatuko zen guztia pentsatuz eta neurriak hartu beharrean aurkitu zen beraien burua.

Altxorraren banaketa

Jabetzean gertatzen zenarekin, 1533ko ekainaren 18an Pizarro Gobernadoreak funditza erabaki zuen lortutako urea eta zilarra, ondoren taldekoen artean banatzeko³. Banaketako aktak adierazten duenez, zaldun soldadu bakoitzak batanez beste 9.386,60 urrezko peso eta 396,90 zilarrezko marko eskuratu zituen, eta erdia baino gutxiago berriz infanteriako soldadu bakoitzak.

Atahuelpak bere hitza bete bazuen ere ordea, Pizarrok bere aldetik uko egin zion eta beraren ofizial, kapitain eta esperientzia zuten pertsonekin bildurik, hiltza erabaki zuen Inka handia, sententzian esanaz traizio bat egin zuela eta erre egin beharko zela kristau bihurtzen ez bazen. Arriskuan zela ikusirik, kristau izatea nahi zuela adierazi zuen Atahualpak eta Vicente de Valverde fraideak bataiatu zuen, Frantzisko deitura ezarriz eta ez Juan historialari batzuk esan izan duten bezala.

Beraren hilketari buruz ez da ziurtasun handirik historialarien artean, baina aipatzekoak dira bakarren batzuk⁴ (4), eta beste era batera adierazten

(2) "... trájole unas hermanas y mujeres de Atabaliba, y trajo muchas vasillas de oro, cantaros y ollas y otras piezas y mucha plata, y dijo que por el camino venía más, que como es tan larga la jornada, cansan los indios que lo traen y pueden llegar tan aína, que cada día entrará más oro y plata de los que quedan más atrás, y así entran algunos días 20.000 y otras veces 30.000 y otras 50, y otras 60.000 pesos de oro en cántaros y ollas de tres arrobas y de a dos, y cántaros y ollas grandes de plata y otras muchas vasijas".

(3) VILLANUEVA SOTOMAYOR, Julio R. *El Perú en los tiempos modernos*. "Luego de pagar los derechos del fundidor, el quinto real para la Corona española, fue de 262.259 pesos de oro de alta pureza, el fundidor al que se le pagó fue un orfebre español. Pero toda la fundición la hicieron metalistas indígenas, de acuerdo con su método."

(4) SANTA CRUZ PACHACUTIK, Juan de. "El Inca fue muerto a garrote."

du berriz⁵. Dena dela Pizarroren hitzak ez zuen zentimo bat bakarra ere balio izan. Berdin gertatzen da hilketa egunari buruz, eta Sevillako Indietako Artxiboan aurkitutako agiri baten oinarrituz⁶, baina bere aldetik beste historialari handi batek adierazten du⁷ (7). Inkaren heriotzarekin amaitu zen Imperioa gobernatu zuten dinastia.

Nicolas de Azpeitia, lekuko berezia

Nahiko garbi adierazten du 1532. urteko agiri batek norainoko hurbiltasuna zuen azpeitiarrak Pizarrorekin eta beraien inguruan gertatzen zenaren berri nahiko ongi ezagutzen zuela 26 urte besterik ez bazituen ere. Apirilaren 12an Alfonso Riquelme diruzainari auzia jarri zionean Pizarrok bere testigutzat izendatu bai zuen azpeitiarra⁸.

Baina borrokarik gogorrenetan ere parte hartuko zuen seguruenik azpeitiarrak eta hainbat agindu emanaz gainera inolako zalantzari gabe zenbait unetan. Cajamarca gertatu zen guztiaren testigu izan zela garbi da, Inka handiaren jarraitzaileak ezagutzen ez zituzten armak erabiliz, hildako pila bat utzirik emparantzan eta jarraituz gainera ondoren bertatik ihes egitea lortu zutenei⁹.

(5) DE LA HOZ, Sancho. “Se le dio una vuelta al cuello con un cordel y de ese modo fue ahorcado.”

(6) PEACE, Franklin. “... y en dicho pueblo de Cajamarca en 31 días del dicho mes de julio en presencia de los dichos oficiales de S. M., Francisco Pizarro, 1.185 piezas en piezas labradas de indios que dijo que se le había dado al cacique Atahualpa y manifestoles después de la muerte de dicho Atahualpa cinco días.”

(7) ROSTWOROWSKI, María. *Historia del Tawantinsuyu*. “es lógico pensar que la muerte del Inca ocurrió después de 8 de junio y antes del 28 de julio de 1533. La partida de Cajamarca se inició a mediados de agosto por grupos, el 26 de ese mismo mes estaban en Andamarca y el 2 de setiembre estaban en Huaylas. La fecha antojadiza del 29 de agosto es completamente equívocada y se hace necesario rectificar el error.”

(8) GUILLÉN GUILLÉN, Edmundo. “Entre estos, los que aportaron más detalles fueron: el vascongado Nicolás de Azpeitia, joven contador de 26 años de edad y que después estuvo en la sorpresa de Cajamarca...”.

(9) “Sonaban los cascabeles atados a los caballos, disparaban ensordecedores los arcabuces, los gritos, alaridos y quejidos eran generales. En esta confusión los aterrorizados indígenas en un esfuerzo de escapar, derribaron una pirca de la plaza y lograron huir. Tras ellos se lanzaron los jinetes, dándoles alcance mataron a todos los que pudieron, otros murieron aplastados por la avalancha humana.”.

Pizarrok Inka hiltzeko erabakia hartzeko egin zuen bileran, ez ote zen gero azpeitiarra izango kapitain kargua zuenez? Ezinezkoa ere bada jakitea zer nolako iritzia agertu zuen gaiari buruz, pentsatzekoa da une garrantzitsu hori bizi beharko zuela bildu zirenkin batera. Baino, gerratean hartu beharreko erabakiak alde batera utzirik, konkistatzaileen hainbat astakeria ere ezagutu zuen Nicolas de Azpeitiak eta ekintza ikaragarri horien berri jasotzen ahalegindu zen batez ere Bartolomé de Casas fraidea¹⁰.

Horrelako gertakizunak ondorio gogorrak sortu behar zituen Peruko biztanleen artean eta kontutan hartzekoa da historialari batek adierazten diguna¹¹.

Aurrez aipatu dugun Bartolome de las Casas fraideak lortuko zuen errege Carlos I.ren aldetik Valladoliden Batzorde berezia egitea, bertan adierazten zuela mundu berrian gertatzen zenaren berri, idazten joan zen astakeriak jakinaraziz. Peruko berri agertzean, Pizarroren jokaerari buruz hitz gogorrak erabili zituen¹². Irudimenari atea zabaltzea nahikoa dugu zer nolako jokaera izan beharko zuen azpeitiarrak jakiteko bere talde buruaren aginduak betetzeko, parte hartuz behin eta berriro astakeriarik handienetan, genozidio bat bururatzeko azken batean, bat egunik zirela gainera soldaduak

(10) DE LAS CASAS, Bartolomé. *Brevísima relación de la destrucción de las Indias*. “Yo afirmo, que yo mismo vi ante mis ojos a los españoles cortar manos, narices y orejas a indios e indias sin propósitos algunos, porque se les antojaba hacerlo... y yo vi que los españoles les echaban perros a los indios para que los hicieran pedazos, y los vi así aperrear a muy muchos... También vi que llamaban a los caciques y principales indios que viniesen de paz seguramente y prometiéndoles seguro, y en llegando luego los quemaban. Y en mi presencia quemaron dos...”.

(11) SADER, Emir. *Perú: la civilización inca y su masacre*. (Según traducción de Alex Tarradellas). “Eran cerca de seis millones, tenían una de las civilizaciones más avanzadas del mundo en la época. Fueron diezmados. En cinco años estaban reducidos a 1,6 millones, esclavizados. Todos los que componían la élite –política, religiosa, científica, cultural, militar–, unos trescientos mil, fueron liquidados en poco tiempo, cortando las posibilidades de supervivencia de aquella civilización. Todos los conocimientos que habían acumulado en astronomía, arqueología, culinaria, religión y agricultura fueron liquidados.”

(12) DE LAS CASAS, Bartolomé. *Brevísima relación de la destrucción de las Indias*. “En el año de 1531 fue otro tirano grande con cierta gente a los reinos del Perú, donde entrando con el título e intención e con los principios que los otros todos pasados (porque era uno de los que se habían más ejercitado e mas tiempo en todas las cruelezas y estragos que en la tierra firme desde el año de 1510 se habían hecho), creció en cruelezas y matanzas y robos, sin fe ni verdad, destruyendo pueblos, apocando, matando las gentes de ellos e siendo causa de tan grandes males que han sucedido en aquellas tierras, que bien somos ciertos que nadie bastará a referirlos y encarecerlos, hasta que los veamos y conozcamos claros el día del juicio...”

eta erlijiosoak. Azken hauei buruz, adierazten da honela¹³, beraien lana ere indarkeria bat bihurtu zenez azken batean.

Nicolás de Azpeitia, berriro jaioterrián

Sinetsi ezinezko aldaketa egingo zuen azpeitiarrak Perutik bihurtzean. Ezinezkoa da jakitea lurralte haietan bizi izan zituen une larriak eragin zioten edo ikusi izan zituen astakeriak eragin zioten, baina bere jokaera behintzat erabat ezberdina izan zela adierazten dute ondorengo urteetan egin zituen ekintzak gogoan izanik. Indiar batekin ezkondurik zela eta berarekin alaba bat zuela, eta berriro ezkondu zela Ana Velez de Vicuña eta Alzagarekin, alde batera utzirik, nahiko garbi adierazi duenez Miren de Miguel Lacasak¹⁴, beste gertakizun batzuetan oinarrituz nahi genuke Nicolas Saez de Elolaren aldaketa izugarriaren zergatia aurkitu, sinesgaitz bihurtzen denez nonahitik begiratuta ere

La evangelización, que no era precisamente ir a leer el evangelio a los antiguos peruanos de modo pacífico y amable, como pretenden hacer creer a los ingenuos y desinformados escolares dichos sacerdotes, sino que conquistadores y “doctrineros” tenían como horizonte y meta la idea de que venían a combatir al demonio mismo plasmado en las creencias y cultura peruana que, según su retorcida visión, se expresaba en las “idolatrías” de los antiguos peruanos.

Aberastasun handiarekin bihurtu zen jaioterrira eta bere aldaketaren lehen urretsetako bat, Azpeitiko Parrokian kapera bat eraikitzeko tokia erostea izan zen, erretaula bat ere bereganatz ondoren. Geroago eraikiko zen toki berean, gaur egun ikusgai den kapera zoragarria, berari bizitzaz emateko apaizak ordaindu, Gramatika katedra bat sortu eta urtean behin sei emakume behartsu ezkontzeko dote dirua izendatuz, herriko Udalari eskatuz testamentuaren bidez agindua betetzea.

(13) MAURTUA, José. “Los sacerdotes que aquí llegaron efectuaron mil y una tropelías conjuntamente con los militares españoles cooperando en la destrucción y saqueo sistemático de los templos de la cultura autóctona, quemando huacas (los templos sagrados) y los así llamados “ídolos” que eran objetos de simbólicos dioses locales de las culturas autóctonas que eran considerados por los españoles conquistadores y por los sacerdotes que les legitimaban “demonios” o “supay”.

(14) EUSKALERRIAREN ADISKIDEEN ELKARTEA. *Boletín LXVII, 1-2. 2011.*

Gure ustez, aldaketa horretan zerikusi handia izan zuen pertsonai baten berri adierazten digu 1561. urteko Udalbatzarreko akta batek¹⁵. Peruko lurraldetako bizi izandakoak eragingo zion seguruenik aurrez izandako jokaera erabat aldatzeko, baina bere bidean aurkitu zuen lagunak ere izango zuen zerikusia zalantzak gabe, herriko agintariekin horrela adierazten zutenez. Hara hor bat eginik beraien herriari zerbait eskaini nahirik eta biak gainera jaioterriaren deitura harturik ibilitakoak bide oso desberdinetan¹⁶, beraren berri jakin nahirik honoko erantzuna eman zigunez Leire Monastegiako artxiboko arduradunak.

Nicolás Saez de Elolaren heriotza

Joan de Aquemendi eskribauaren aurrean egin zuen testamentua 1553ko abenduaren 14an, aurreratu dugun bezala Azpeitiko herriari eskatuz bera betetzea eta bi egun geroago hil zen, hau da, abenduaren 16an, sekulako iskanbilak sortzen zituela beraren alargun Maria Velez de Vicuña eta Alzagak, elkarrekin lortutako ondasunak zirela eta ez zirela. Borroka horretan ahaleginduko ziren azpeitiar agintariekin gauza guztiak garbitzen, batez ere ongilearen ondasunak zaindu behar zituztelako emandako agindua guztiz betetzeko.

Denborarik galdu gabe eman zitzaison lanari hasiera, abenduaren 17an, Nicolas hil zen etxeko gauzak miatuz, akta bat jasorik gainera eskribauaren aurrean, eta bertan aurkitu zituzten gauzen artean adierazten dira honoko

(15) AHA. 1561. “Por quanto se halla en esta villa el muy magnífico señor Fray Martín de Azpeitia, Abad de Irache, por cuyo parecer y buen consejo el dicho señor Nicolás Sáez de Elola se dispuso y determinó a hacer la capilla que mandó hacer e instituyó la capilla, y más de ella el casamiento de las huérfanas y la catedra, dejando para ello la renta y todo lo demás que él tenía, dejando a esta villa y a merced, provecho y honra, acordaron que los dichos alcaldes de le hacer este favor con alguna cosa de lo que dispusieran de esta tierra da lugar...”.

(16) *Studia Monastica* eta E. Zaragoza Pascualen *Abaciologio del Monasterio de Santa María la Real de Irache* obrak konsultatu ondoren. “Martín de Azpeitia. Parece era natural de Azpeitia. Fue elegido Abad de Irache para acabar el trienio de su antecesor Juan de Cañas. Había tomado el hábito benedictino en San Miguel de la Cogolla en 1529 ó 1530. Fue Abad de Santiago de Compostela (1546-1549), de San Miguel de la Cogolla (1556), y de Salamanca (1565), donde murió a mediados de setiembre del mismo año. Asistieron a su entierro al Arzobispo de Santiago de Compostela y otros obispos, que estaban reunidos en aquella ciudad celebrando el V Congreso Compostelano, que trató de la aplicación de los derechos tridentinos. Fray Martín fue también procurador de Nájera en el capítulo general de la Congregación de San Benito de Valladolid de 1556, defensor general (1556-59 y 1562-65), dos veces Abad de Irache (1556-59 y 1559-62), y visitador general (1562-65).

hauek¹⁷, zerrenda oso luzea bada ere, baina tartean Martin de Azpeitia fraideak idatzitako gutun bat izanik, elkarrekin izan zuten loturaren ezaugarri.

El P. Yepes, autor de la Crónica General de la Orden de San Benito, lo elogia como “hombre de conocidas prendas y observancia”.

Baina ez zen eman amaitutzat agiri horretan bertan adieraziko zenez Joan Perez de Lasaoren aldetik, Maria de Garagarza alargunak hil zenaren kaxa bat zuela eta zilarra zegoela bertan. Berehala joan ziren aipaturiko alargunaren etxera Baltasar de Garagarza, Joan Perez de Lasao eta Joan Martinez de Goyaz, gainontzeko testiguak eta eskribaua zirela, bigarren aipaturikoak galdeztuz zilarra eta dokumentuak gordetzen ziren kaxa hura non aurkitzen zen. Alargunak aurkeztuko zuen beharrezko kaxa eta bertan zenaren berri jasoko zuen eskribauak. Xehetasun guztiak ematen dira unean jasotako aktan, baina gehiegiz luzatu gabe bakar batzuk aipatzea nahikoa izango dela iruditzen zaigu, lagungarriak guztiak zalantzarak gabe konkistatzailaren berri jakiteko behintzat. Ez bai zen gezurra Lasao jaunak adierazitakoa¹⁸. Kontratu ugari zuen, adieraziz nolabait eskuratzeko dirua

(17) “... e sobre la dicha mesa hallase que estaba una pieza de oro de 5º ducados. Una chamarra morada con guarnición de seda. Un capote de grana colorada. Otro capote e sayo verde. Una gorra de seda en terciopelo con 47 clavos de oro. Un piano que suena que se hizo de los herederos del Dr. Alzaga... Unas alforjas. Dos mesas de bronce. Una pieza engastada en oro, el cual entregó al dicho Juan Martínez de Goyaz e tomó en el dicho depósito e queda en su poder. Una capa negra guarneida de terciopelo de parte de fuera y dentro con tafetán doble. Una mochila cubierta de seda azul de jinete con su reata al cabo, e con sus fierros y sus botones de hilo de oro. Unos sementales de la misma guarnición de la jineta con sus botones de hilo de oro...”

(18) “... la cual dicha caja fue traída ente el dicho señor alcalde e en su presencia e de los testigos fue abierta aquella con una llave, e así abierta lo que en ella se halló en plata e escrituras se mandó inventar e inventó el dicho señor alcalde, e la razón de ello es de la manera siguiente:

Una fuente de plata sobredorada. Tres barras de plata e una de ellas dorada e las otras dos grandes. Siete tazones con pie e el séptimo algo menos e viejo e con su pie como las otras. Dos candelabros de plata. Un salero de plata grande. Otro salero medio de plata. Dos platos de plata que parece que son de Sebastián de Marín. Doce clavos de oro. Un privilegio dorado de los 37.000 maravedises que la dicha doña Ana Velez tenía situados en las partes, e como para el dicho privilegio parece el cual está sellado con sello real. Otro privilegio dorado en pergamino e sellado con sello real colgado de hilos de oro, de los 300.000 maravedises de juro que el dicho Nicolás de Elola tenía en la ciudad de Sevilla, sobre las rentas e de la manera que por el dicho privilegio parece está declarado. Un libro de cuentas encuadrado cubierto con pergamino en que hay doscientas treinta hojas escritas. Los contratos de censos contra Simón de Ibarluce e sus bienes. Yten contra Joan de Aguirre e sus bienes, e otro contra el mismo. Ytem, contrato de censo contra Juan Martínez de Emparan, cuya es la casa e solar de Emparan e sus fiadores. Ytem, contrato de censo contra Diego Velez de Guevara. Ytem otro contrato de censo contra Pedro Ortiz de Gamboa, señor de la casa de Oñaz...”

zuela hil zen unean. Beste era bateko agiriak ere agertu ziren kaxan eta beraien artean, kapera eraikitzeo erosi zuen lurrealdearen eskritura, Ana Velez de Vicuñarekin ezkondu zeneko kontratua eta beste erosketen batzuen eskriturak eta zorretan zegoenarekin eginiko agiriak.

Inbentarioa egin ondoren eta Nicolas de Elolak utzitako dirutza gehitzeko asmoarekin, testamentuaren bitartez agindutakoa bete nahirik, 1554an erabaki zuten herriko Udalak eta testamentariekin bat eginik, dirutza gehien eskaintzen zuenaren eskuetan jartza aurkitutako gauza batzuk behintzat, garaiko ponperia bat emanaz ekintzari¹⁹.

Horrela egingo zen lehen salmenta igandean. Deialdiak sekulako erantzuna izan zuela adierazten du unean jaso zen aktak²⁰. Ez bai zen ohikoa hil berria zen baten gauzak eta janzkiak salgai ateratzea.

Gehiegizkoa litzateke akta guztiaren berri ematea, baina zerbait adieraztea derrigorrezkoa iruditzen zaigu²¹, gainera jakinean izanik lehen batetan behintzat ustekabeko zerbait ere gertatu zela.

(19) En la iglesia parroquial del Señor San Sebastián de Soreasu de la villa de Azpeitia, día domingo que se contaron ocho días del mes de abril del año del Nacimiento de Nuestro Salvador Jesucristo de mil quinientos e cincuenta e cuatro años. Estando el pueblo de la dicha villa e su tierra copiosamente juntados en la dicha iglesia oyendo la misa conventual, don Andrés de Loyola, rector de la dicha iglesia a pedimento de los testamentarios del dicho Nicolás Sáez, publicó e manifestó en la dicha iglesia e parroquia, de cómo en este día después de mediodía ponían en venta en pública almodena en la plaza de la dicha villa para vender e rematar en los mayores pujadores, dos mulas que fueron de dicho Nicolás a los vestidos e ropas de seda o paño que el dicho Nicolás tenía e dejó al tiempo de su muerte e fueron inventados todos ellos, para que todos aquellos que los quisieren haber e comprar parecieran a la dicha plaza a la hora dicha para ello asignado donde se hará el remate de ellos, e lo susodicho así hablado e manifestado, yo Joan de Aquemendi escribano público...”.

(20) “... estando en la dicha plaza pública juntados con muchos vecinos”.

(21) Primeramente se remató en Francisco de Gárate, vecino de la dicha villa como en mayor pujador, el manteo de grana colorada que fue del dicho Nicolás, de lo contenido en el dicho inventario, por cuatro ducados pagados en reales e así rematado recibió el dicho Francisco en su poder en dicho manteo, e recibido otorgó e pagó al dicho Martín Sánchez de Goyaz los dichos cuatro reales...

Y después del dicho remate del dicho manteo que se hizo en el dicho Francisco, don Baltasar de Garagarza, clérigo presbítero, que se halló en la dicha plaza en la venta e remate de los dichos bienes, dijo que él en nombre de doña Ana Velez de Alzaga e Vicuña, mujer que fue del dicho Nicolás e para ella pedía por el tanto el dicho manteo, e por más justificación ofrecía un real más que el dicho Francisco por ello, e con esto pidió le sea entregado el dicho manteo, e el dicho alcalde dijo que lo coja.

...

Garai honetarako kaperako lanak hasiak ziren eta herriak lan handiak egin behar izan zituen Ana Velez de Vicuña eta Alzaga alargunarekin konponketa batera iristeko. Izan ere oztopo handiak jartzen bai zituen berak dirua zela tarteko eta kaperaren nagusitasuna ere beregain hartu nahirik. Azken baten, agiri guztiak osatu eta eskuzabal jokatzea erabaki zuten Udalak eta testamentariek, oztopo guztiak baztertzek²². Beraren eskaera guztiekin amaituko zen horrela, bere senar zenaren testamentuan agindutakoa aurrera eramateko.

Eraiki zen kaperari buruz, 1684ko abuztuaren 2an Jacinto de Latenta apai-zak Udalari eginiko eskaera baten bitartez agertzen zaigu²³, eta pentsatzekoá

...
Ytem, Tomás de Zandategui ofreció por la jaqueta de paño colorado e forrado que fue del dicho Nicolás, contenido en el dicho inventario once reales, e porque no hubo mayor pujador se remató la dicha jaqueta en el dicho Tomás como en mayor pujador...

Domingo de Odriozola ofreció por el sayo de paño con pespunte que fue del dicho Nicolás y tenido en dicho inventario doce reales, e después de ello Pedro de Eizaguirre, el de Zabalaga quince reales, y porque no hubo mayor pujador se remató en los dichos quince reales...

Tomás de Zabala prometió por la capa negra con pespunte que fue de dicho Nicolás, treinta reales e porque no hubo mayor pujador se remató en el dicho Tomás...

Joan de Ondarra prometió por la una de las mulas que fueron del dicho Nicolás, por la mejor de ellas con la silla, treinta ducados, e luego después de ello el dicho Joan de Urbieto treinta y dos ducados, e luego después de ello el dicho Joan de Ondarra treinta y tres ducados, e porque no hubo mayor pujador se remató en dicho Joan...

Don Baltasar de Garagarza prometió por la mula menor catorce ducados, e luego después de ello Domingo de Areizaga quince ducados, e luego después de ello Joan de Urbieto dieciocho ducados pagados para el día de San Juan de junio próximo venidero, e luego después de ello el dicho Baltasar dieciocho ducados y medio, e después de ello Joan de Urbieto veinte ducados, e luego después de ello el dicho don Baltasar veintiún ducados, e porque no hubo mayor pujador se remató la mula en don Baltasar...

(22) ... de modo que montan los dichos ducados con los siete capítulos precedentes de suso contenidos a la dicha doña Ana aplicados e por respetos de ellos declarados, le han de ser pagados todos ellos, 780 ducados. Los cuales 780 ducados por los respetos dichos que da la dicha doña Ana Velez sean dados e pagados de la herencia e bienes delm dicho Nicolás su marido, e de las dichas rentas que él dejó en la ciudad de Sevilla e son de la herencia, los medios de ellos de lo corrido de la renta de Sevilla del dicho año presente de 1554 cuya cobranza por la dicha herencia e su voz e está encomendado...

(23) A.H.A. "Don Francisco de Latenta, presbítero expectante y adscrito a la iglesia parroquial de V. S. donde se hallan vacas dos capellánías del barón Elola por fin y muerte de don Juan Bautista de Aizarnazabal y don Juan de Oñaz sus capellanes, y porque a la dicha capellánía de Elola se presenta y debe presentarse precedido oposición rigurosa de lectura sobre puntos

...

da bertako hormetan unean aurkitzen den lan bikaina agerian izango zela unean, geroago eta urte askotan zehar ezkutuan izan badira ere.

Gogoan edukitzeko da lehen unetik izan zuela Andre Mariaren deitura Elolaren kaperak eta gure egunetara Bakardekoia deiturarekin iritsi zitzraigula, Andre Mariaren irudia izanik bertako erretaula nagusian. Elola berak kapera eraikitzeko lurraldea erosi ondoren adierazten da Andre Mariarekin zerikusia zuen erretaula erosi zuela²⁴, baina gaur guztia aldaturik agertzen zaigu, ia garaikoa izan daitkeen Andre Mariaren irudi bat bada ere Parrokian bertan, urteetan zehar nahiko astakeriak jaso izan dituena gainera. Pentsarazten dugu bera ikustean, ez ote zuen zerikusirik izango irudi horrek garai batetako erretaularekin...

Herritarrentzat mesedegarria

Esan beharrik ez da Nicolás Saez de Elola jaunak herriari eskainitakoa guztiz txalogaría izan zela. Beste edozertan gastatu zitekeen Peruko lurraldean lortutako aberastasuna, baina hori baino nahiago izan zuen bide berri batzuk zabaltza maite izan zuen herriari eta herritarrentzat.

Alde batetik, bizi izan zuen borroka giroak eraginik edo, erlijio alderdia indartu nahi izan zuen. Bestalde, ikasketak egiteko aukera sortu zuen herrian, beste inon ez bezala, etxe edo ikastetxe bat eraikinez horretarako.

...

de Sagrados Cánones sin embargo de que V. S. como única patrona mandó poner en la forma ordinaria sus edictos para los opositores, y aunque han pasado sus términos con muchos días, más ninguno se ha opuesto a ella, por cuya causa no viene aaltar un capellán y quien rece y cante las misas correspondientes a dicha capellanía, los demás capellanes viéndose gravados con los cargos y misas de sus capellanías, y por exonerarse de las pertenecientes a las que está vaca y falta de socorros, han tratado y tratan como consta a V. S. el dejar dicha capilla y sus capellanías, con que sobre no cantase dichas misas de la dicha capellanía que se cantaba, se halla al presente dicha capilla por defecto de lo referido en disposición próxima y muy probable de desaparecerse de los cinco capellanes restantes y consiguientemente de privarse los difuntos de tantos y tan considerables sufragios de misas, y la Virgen Santísima de singular veneración y culto, y dicha iglesia de mucha autoridad y crédito por haber sido dicha capilla de las más celebradas y afamadas de estas provincias, y así en consideración de lo referido y de que la causa de todos inconvenientes resulta principalmente de la falta de dicho capellán, y que V. S. como única patrona y la más interesada, ha de atender con su patriotismo y brillantísimo celo a la conservación y aumento de la exaltación del culto divino y de la gloria y grandeza de la dicha capilla y cumplimiento de sus sacrificios y sufragios, el suplicante en la mejor forma que puede, por cuanto concurren en él los requisitos necesarios, se pone con todo rendimiento ante V. S. así a la capellanía...

(24) "... un retablo de la advocación de Nuestra Señora e de su historia".

Ikasketa horiek baliagarriak izango ziren herritarentzat, ondoren erlijio bidea hartzeko edo unibertsitatera joateko. Eta azkenik, gogoan izan zuen baita, garaiko emakumearen egoera eta maila soziala, inongo diru sarrerarik gabe aurkitzen zirenez. Kontuan edukitzekoa da gainera, ia hirurehun bat urtean iraun zuela berak herriari eskainitako aberastasunak eta gure aurreko azpeitiarrak jaso zutela aparteko bultzada.

Penagarria da hori guztia lortzeko Peruko lurretan borroka bizian ibili zela jakitea, bertan zegoen zibilizazioa ezerezean utzirik. Irudimenari uzten diogu lurralte haitetara ihes egiten eta bertan gertatutakoarekin amets egiten. Baino gogoan edukitzekoa da baita, Peruko herrialdearekin zorretan garela.

Azpeitia deituriko basamortua Perun

Garai bateko Peruko lurraldean urteetan zehar gertatu izan diren aldaketak kontutan izanik, ez da erraz aztarna gehiegi ateratzea, baina bada oraindik San Vicente de Azpitia deituriko herrixka bat, 1901an sortu zutena inguruan bizi ziren artean. Bertan jaioa den Juan Aburto Quispe jauna ahalegindu da urteetan zehar deitura horren berri jakin nahirik eta argitaratua du 2010ean gaiari buruz osatutako liburua. Bertan adierazten denez, herria sortu aurrez zuen lurralteak Azpeitia deitura, aurkitu dituen agiri ofizialak diotenez²⁵.

Nondik nora ager daiteke “Azpeitia” deitura bat Peruko lurraldean? Garbi da, gaur egun “Azpitia” deiturarekin ezagutzen bada ere, aurrez behintzat Azpeitia deitura zuela lurralteak, “Pampas de Azpeitia” edo basamortua gehienbat, historialari berak aurkitutako zenbait agrietan

(25) ABURTO QUISPE, Juan. *El Balcón del Cielo. Historia de San Vicente de Azpitia. Cañete. Perú.* “Exmo. Sr.: Don Andrés Angulo a nombre de D. Manuel Vivanco ante V. S. respetuosamente expongo: Que en días pasados elevé a este Supremo Gobierno una solicitud, por la que manifesté que mi representado era dueño y propietario de las tierras denominadas “Azpeitia”, situadas en el Valle de Mala, por haberle comprado a D. Luis Bellodas. Manifesté también que los indígenas del común de Chilca se habían apoderado de los referidos terrenos, los habían dividido y los estaban trabajando. Como dueños, por decir que este Supremo Gobierno las había adjudicado. Para que V. S. se convenza de la verdad en cuanto a ser Vivanco propietario de las tierras de “Azpeitia” y para que pueda resolver conforme a los principios de justicia acompaña en f. 50 los títulos que comprueban el dominio que Vivanco tiene en los dichos terrenos, cuyos documentos no dejan la menor duda sobre el particular. En su virtud, se ha de servir V. S. mandar que los indígenas de Chilca salgan en el día de los terrenos de mi parte, dejando a este en el libre uso y dominio que le corresponde. Por lo tanto y esperándolo así de la integridad de V. S., a V. S. suplico, que habiendo por presentado los títulos de que llevo hecho mérito, se sirva decretar como solicitó, por ser de justicia. Lima, 2 de agosto de 1852.”

agertzen den bezala. Gertatzen dena da urteak igarotzean galdu egingo zela deituraren zati bat Azpitia edo Aspitia bezala geldituz.

Lurralde horretan sortuko zen gaur egun ezagutzen den San Vicente de Azpitia herria, Juan Aburtok adierazten duenez elkartasun bat sorturik Chilca inguruko nekazariek 1900. urtean José Candelario Caycho buru zutela, unean Errepublikako Presidentea zenari eskaera berezia eginik, hain zuzen ere, lurraldera ura eramateko²⁶.

Lan izugarriak egin ondoren lortu zuten nekazariek lurraldea ureztatzea Mala ibaiko urari bidea eginik Eduardo López de la Romana, Errepublikako Presidenteak 1901eko martxoaren lehen egunez emandako baimenari esker eta guztia aldatuko zen inguruan. Presidentearen baimenaren berri martxoaren 11n jaso zuten eskaria luzatu zutenek eta data hori dute herriaren sorrerakoa bezala harturik bertako biztanleek. Bainak herriak bakarkako eginiko bizitza nahiko iraupen motzekoa izan zen, 1922an bat egin zuenez sortu berria zen Santa Cruz de Flores deiturikoarekin.

Baina, galdera bat gelditzen zaigu erantzun ezinean oraingoz behintzat. Nondik nora Azpeitia deitura Peruko lurraldean? Irudimenari lanean uztean, Nicolas Saez de Elola edo Nicolas de Azpeitia etortzen zaigu gogora behin eta berriro, berak egin zuen bizitza lurralde haietan eta ez urrutí gainera une bakarren batzuetan aipaturiko basamortutik, batez ere 1537ko azaroaren 15ean, Azpitiatik zortzi kilometrotara bildu zirenez Pizarro eta Almagro, Mala inguruan, beraien arteko eztabaidak konpondu nahirik, baino bakoitzak bere taldea inguruko mendietan gorderik zuela, zerbait gogorra gerta zitekeela pentsatzu. Aburto Quispe jaunak dionez, elkartze horren ondoren, Pedro de Alconchel gelditu zen lurralde batzuetako buru bezala eta Azpitia inguruan berriz, Calango deituriko lurraldean, Pedro Navarro. Bainak, antzeko galdera bat du berak ere buruan²⁷.

Ezinezkoa egiten da oraingoz behintzat horrela den edo ez jakitea, baino garbi da Gipuzkoako Azpeitia eta Cañete probintziako San Vicente de

(26) ABURTO QUISPE, Juan. Idem. “... nos presentamos y decimos: que la irrigación de los terrenos denominados Pampas de Azpitia, ubicadas en la parte sur de este distrito, ha sido preferente y constante anhelo de algunos agricultores que consideran justamente esas como abundante fuente de riqueza industrial para el distrito de Chilca y para el fisco. Irrigadas las pampas de Azpitia el cultivo principal de la uva y algodón se hará en vasta escala proporcionando así trabajo permanente y bien retribuido a todos los que quieran asegurar un porvenir amplio y firma...”.

(27) ABURTO QUISPE, Juan. Item. “¿Fue el instante en que don Nicolás Sáez de Elola, natural de Azpeitia, se estableció momentáneamente en estas pampas y dio origen al nombre de Azpeitia?

Azpitia herrien artean lotura bat egon daitekeela, ia bostehun urtean zehar konturatu gabe izan garena.

Nahiko garbi gelditzen da adierazi dugunarekin, Nicolas Sez de Elolak bere jaioterria benetan maite zuela, bere izena hartu zuenez eta bereganatu zituen lurraldeei ere “Azpeitia” deitura jartzean. Esan dugun bezala, bertan da haur egun San Vicente de Azpitia herria, Limatik 80 bat kilometrotara, 350 biztanleekin, lehen basamortua besterik ez bazen, orain baratza emankorra bihurturik.

Gogoan edukitzeko da bestalde, Ameriketako konkistak aberastu zuela inolako zalantzak gabe Europa, batez ere han bilatutako ureari esker, euskaldun askok ere goratze ekonomiko handia lorturik, bide batez Inka imperio osoa ezerezean utzirik. Gure inguruko eliza eta ermitetara begiratu besterik ez dugu, esaten duguna oinarritzeko. Nondik eskuratutako urrez egokituz izan dira erretaula apartekoak? Lurralde haietan zen bizitza, hizkuntzak eta kulturak zapalduz eta bertako biztanleek esklabo hartuz lortutako aberastasuna da gehienbat.

Ia bostehun urtean eta elkarrengandik hain urrutian diren Azpitia eta Azpeitiak bada, harremanak izateko une egokia dela iruditzen zaigu, azpeitiarren aldetik perutarrei, beraien lurraldeari “Azpeitia” deitura jarri ziena jaio zen tokiaren berri emanaz eta han zertan ibili zen jakinarazteko izan zuen langintzan, diru zaintza, idazkaritza, soldadu eta azken batean urrea Jainkotzat harturik. Eta jakina, aitortu beharrekoa egingo zaigu beraiekin zorretan garela adieraztea eta barkamena eskatzea ez litzateke gaizki etorriko.

Azpeitiko eta Santa Cruz de Floresko Udalak dute erabakia hartu behar dutenek, kontutan izanik azken herri horrekin bat eginik dela San Vicente de Azpeitia deiturikoa.